Hondarribiko Udala

Esp.Kod./Cod.Exp.: 2026K1150007

IKASTETXE ETA UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO PROZEDURA IREKIAN BETE BEHAR DIREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR EN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO, PARA ADJUDICAR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE CENTROS ESCOLARES Y EDIFICIOS MUNICIPALES

AURKIBIDEA

1. **XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK:**
   - 1.1. Kontratuaren gaia
   - 1.2. Eremu espaziala
2. **PRESTAZIOAK BURUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK**
   - 2.1. Kontratuaren xede diren lokalak eta bulegoak
   - 2.2. Garbiketako langileen antolaketa
   - 2.3. Garbiketa motak: mantentze izaerakoak, orokorrak, apartekoak
   - 2.4. Garbitasun metodologia
3. **ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK**
   - 3.1. Betebehar orokorrak
   - 3.2. Materiala eta makineria
   - 3.3. Materiala eskura izatea
   - 3.4. Etengabeko arreta
   - 3.5. Ingurumen irizpideak
   - 3.6. Hainbat lan
   - 3.7. Esleipendunaren eskubideak
4. **BALIABIDE PERTSONALEI BURUZKO BALDINTZAK**
   - 4.1. Pertsonala eskura izatea
   - 4.2. Plantillan aldaketak
   - 4.3. Plantilla handitu edo murriztea
   - 4.4. Langileen jantziak
   - 4.5. Pertsonalaren prestakuntza segurtasun eta higienearen arloan
   - 4.6. Esleipendunaren beste zenbait betebehar
5. **ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK: IKUSKAPENA ETA KALITATE KONTROL; ZEHAPEN ARAUBIDEA**
   - 5.1. Kalitate kontrola
   - 5.2. Kontrol sistemak
   - 5.3. Kontratua kontrolatzea

I. ERANSKINA: UDAL ERAIKINEN INBENTARIOA

II. ERANSKINA: UDAL ERAIKIN BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO GARBIKETA LANEN PLANIFIKAZIOA

ÍNDICE

1. **OBJETO Y CONDICIONES GENERALES**
   - 1.1. Objeto del contrato
   - 1.2. Ámbito espacial
2. **CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA EJECUCIÓN DE LAS PRESTACIONES**
   - 2.1. Locales y dependencias objeto del contrato
   - 2.2. Organización de los/las trabajadores/as de limpieza
   - 2.3. Tipos de limpieza: de mantenimiento, general, extraordinaria
   - 2.4. Metodología de limpieza
3. **OBLIGACIONES Y DERECHOS DE LA ADJUDICATARIA**
   - 3.1. Obligaciones de carácter general
   - 3.2. Material y maquinaria
   - 3.3. Disponibilidad de material
   - 3.4. Atención permanente
   - 3.5. Criterios ambientales
   - 3.6. Trabajos diversos
   - 3.7. Derechos de la adjudicataria
4. **CONDICIONES RELATIVAS A LOS MEDIOS PERSONALES**
   - 4.1. Disponibilidad del personal
   - 4.2. Variaciones de plantilla
   - 4.3. Aumento o reducción de plantilla
   - 4.4. Vestuario del personal
   - 4.5. Formación de personal en seguridad e higiene
   - 4.6. Otras obligaciones del adjudicatario
5. **FACULTADES DE LA ADMINISTRACIÓN: INSPECCIÓN Y CONTROL DE CALIDAD, RÉGIMEN SANCIONADOR**
   - 5.1. Control de calidad
   - 5.2. Sistemas de control
   - 5.3. Control del contrato

ANEXO I: INVENTARIO DE EDIFICIOS MUNICIPALES

ANEXO II: PLANIFICACIÓN DE LAS OPERACIONES DE LIMPIEZA QUE SE DEBEN REALIZAR EN CADA EDIFICIO MUNICIPAL

Hondarribiko Udala

Esp.Kod./Cod.Exp.: 2026K1150007

1. XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK:

1.1. KONTRATUAREN GAIA

Plegu honetan oinarrituta egiten den **kontratuaren xedea ikastetxeak eta udal eraikinak garbitzeko zerbitzua ematea da.**

CPV Kodifikazioa: 90919000-2 bulegoak, ikastetxeak eta bulego ekipamenduak garbitzeko Zerbitzuak.

1.2. EREMU ESPAZIALA

Irizten da kontratu honen espazio eremua udal bulego guztiak direla, berdin dio zer erabilera ematen zaien, betiere **I Eranskinean** zerrendatutako barrutietara lotutako barrutiren batean badaude.

Era berean, kontratu honen xede da **I Eranskin** horretan dauden eraikinetako leiho, kristal eta beirate guztiak garbitzea.

Eraiki edo eskuratu berriak izanik **I Eranskinean** aurreikusita ez dauden eraikuntzak eta etorkizunean udalaren esku egon litezkeenak kontratuaren barruan sartu ahal izango dira, betiere Udalak egokia irizten badu, eta ez dira kontratu-aldaketatzat hartuko.

2. PRESTAZIOAK BURUTZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

2.1. KONTRATUAREN XEDE DIREN LOKALAK ETA BULEGOAK

Kontratu honen xede diren eraikin guztiak garbitzea barruko nahiz kanpoko bulego guztiak garbitzea izango da, besteak beste hauek: Ikasgelak, bulegoak, aretoak, liburutegiak, tailerrak, korridoreak, sarrerak, komunak, sotoak, ganbarak, patioak, etab.

Garbiketa, era berean, altzari guztien apaingarri guztien osagaietan egingo da, edo lehen adierazitako bulegoetako osagaietan, eta **II Eranskinean** adierazitako lanak izango dira, adierazitako maiztasunarekin eginak.

Adibide gisa, osagai hauek aipatzen dira: Altzariak, argi guneak, ateak eta leihoak dagozkien eskudelekin, leihozangoak, kristalak, gortinak, pertsianak, armairuak, konketak, komun-zuloak, pixatokiak, dutxak, erradiadoreak, sabaiak, hormak, lurrak, alfonbrak eta moketak, liburuak, metalak, eskaileren karelak, barandak, apaingarriak, barruko jolastokiak, eremu irekiak, etab.

1. OBJETO Y CONDICIONES GENERALES

1.1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por **objeto la prestación del servicio de limpieza de centros escolares y edificios municipales.**

Codificación CPV: 90919000-2 Servicios de limpieza de oficinas, escuelas y equipos de oficinas.

1.2. ÁMBITO ESPACIAL

Se considera como ámbito espacial del presente contrato, la totalidad de las dependencias de los edificios municipales, independientemente de los usos que de ellos se hagan, y que estén dentro del recinto vinculado a cada uno de los que se relacionan en el **Anexo I.**

Asimismo, es objeto de este contrato la limpieza de la totalidad de los ventanales, cristaleras y vidrieras que existen en los edificios que se relacionan en el citado **Anexo I**.

Por otro lado, aquellos edificios que sean de nueva construcción o de nueva adquisición, y que no estén contempladas en el **Anexo I**, y cualesquiera otros que pasen a disposición de este Ayuntamiento, podrán integrarse en el contrato, siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno y no tendrán consideración de modificación del contrato.

2. CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA EJECUCIÓN DE LAS PRESTACIONES

2.1. LOCALES Y DEPENDENCIAS OBJETO DEL CONTRATO

La limpieza de todos los edificios objeto del presente contrato abarcará tanto las dependencias interiores como exteriores, tales como: aulas, despachos, salones, bibliotecas, talleres, pasillos, vestíbulos, aseos, sótanos, desvanes, patios, etc.,

La limpieza se efectuará asimismo sobre todos y cada uno de los elementos de decoración, de mobiliario, o de complemento que existan en las dependencias anteriores, realizando sobre ellos las operaciones y frecuencias que se señalan en el **Anexo II**.

A título orientativo se señalan los siguientes elementos: mobiliario, puntos de luz, puertas y ventanas con sus marcos, jambas, cristales, cortinas, persianas, armarios, lavabos, inodoros, urinarios, duchas, radiadores, techos, paredes, suelos, alfombras y moquetas, libros, metales, antepechos de escaleras, pasamanos, elementos decorativos, patios interiores, espacios abiertos, etc.

Hondarribiko Udala

BISITA ERAIKINETARA: Plegu honen xede diren lokalak bisitatu nahi dituzten enpresa lizitatzaileek bisitatu ahal izango dituzte, aldez aurretik dagokion hitzordua idatziz eskatuko dute.

VISITA A LOS EDIFICIOS: Las empresas licitadoras interesadas en visitar los locales objeto del presente pliego, podrán hacerlo previa solicitud al Ayuntamiento de Hondarribia, para concertar la correspondiente cita.

2.2. GARBIKETAKO LANGILEEN ANTOLAKETA

Esleipendunak proposamenean adierazitako garbitasun lanen ardura izango du, eta ezin izango dira *II Eranskinean* adierazitakoak baino txikiagoak izan, ez izaerari eta ez maiztasunari dagokienez. Kontratistak Udalari egin beharreko garbiketa lanen egutegia aurkeztuko dio, plangintza islatuta.

Esleipendunak, une oro, antolaketa neurri komenigarrienak hartuko ditu bere ekipamenduen etekina optimizatzeko.

Kontratistak lana bere proposamenean adierazitako makineria, baliabide osagarriak eta garbitasun produktuak erabiliz egingo du, betiere paramentuen, altzarien eta garbitu beharreko osagaien, materialen eta testuren ezaugarrietarako egokienak direnak aukeratuz. Bere kontura joango da makineria eta baliabide osagarrien mantentze lana egitea edo horiek konpondu edo ordezkatzea, erabiltzeko egoera bikainean egon daitezen, baita garbitasun produktuak berrezartzea ere.

Edonola ere Kontratistak egiten duen antolaketa lanak irizpide hauek jarraitu behar ditu:

a) Bulegoak, aretoak, sarrerak eta eremu komunak garbitzeko mantentze garbiketa egingo da, itxura eta kalitatearen aldetik egoera egokian egoteko eta erabiltzaileek erabili ahal izateko.

b) Beti zentroak egoki garbitzeko beharrezko baliabideak erabiliko dira, karroak erabat hornituta garbitasun produktuekin eta tresna, makineria, eskailera, aldamioak, etab.

c) Material ezberdina erabiliko da bulegoetarako, aretoetarako, sarreretarako, korridoreetarako eta bestelako eremu komunetarako, komunetarako eta dutxetarako, konketetarako eta mailetarako.

d) Kanporatzeko bide gisa erabiltzen diren ate eta korridoreak oztoporik gabe egongo dira, hau da garbitasun tresna eta materialik gabe. Igogailuetan ez dira osagaiak ohiko funtzionamendua eragozteko moduan jarriko.

e) Egiaztatzeko zerbitzuan erabiltzen diren garbitasun produktuen kalitatea eta ezaugarriak enpresa esleipendunak kontratu

2.2. ORGANIZACIÓN DE LOS/AS TRABAJADORES/AS DE LIMPIEZA

La adjudicataria se responsabiliza de efectuar las operaciones de limpieza indicadas en su proposición, sin que puedan ser inferiores en cuanto a naturaleza o frecuencias a las que se señalan en el *Anexo II*. El contratista deberá presentar al Ayuntamiento un calendario con la planificación de las limpiezas ordinarias a realizar.

La adjudicataria deberá, en todo momento, adoptar las medidas de organización que resulten más convenientes para optimizar los rendimientos de sus equipos.

El/la contratista desarrollará el tipo de trabajo, con la utilización de la maquinaria, medios auxiliares y los productos de limpieza indicados en su proposición y que resulten más adecuados, tanto en función de las características materiales y de textura de los pavimentos como del mobiliario y complementos que deban ser objeto de limpieza. Será a su cuenta el mantenimiento, incluida la reparación o sustitución de la maquinaria y medios auxiliares a fin de que se encuentren en todo momento en perfecto estado de uso, así como de la reposición de los productos de limpieza.

En cualquier caso, la organización que adopte el/la Contratista deberá observar los siguientes criterios:

a) La limpieza de las oficinas, salas diversas, vestíbulos y otras zonas comunes, requerirá una limpieza de mantenimiento que asegure un estado correcto de aspecto y calidad que permitirá su utilización por los usuarios.

b) Se utilizarán siempre los medios necesarios para la adecuada limpieza de los centros, carros completamente equipados con los productos de limpieza y utensilios, maquinaria, escaleras, andamios, etc.

c) Se utilizará distinto material para los despachos, salas diversas, vestíbulos, pasillos y otras zonas comunes y para los baños y duchas, lavabos y gradas.

d) Las puertas y pasillos considerados como vías de evacuación estarán libres de obstáculos, entendiendo como tales los útiles y materiales de limpieza. En los ascensores no se depositarán los citados elementos de forma que impidan su normal funcionamiento.

e) Para comprobar que la calidad o propiedades de todos los productos de limpieza que se utilicen en la prestación del servicio son los

Hondarribiko Udala

honetan azaldutakoak direla, edo zalantzak sortzen direnean horietako baten edo batzuen gainean, kontratuaren arduradunak enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dio aurkez ditzala osagaien nahiz sanidade arloko egiaztagiriak, eta horiek fabrikatzailek eman ahal izango ditu, eta bestelako egiaztatze osagarririk ez badago laborategi homologatu bati eskatuko zaio egitea, eta gastuak esleipendunaren kontura joango dira.

2.3. GARBIKETA MOTAK:

Plegu honen eraginetarako hiru garbiketa mota ezartzen dira:

- OHIKO GARBIKETA
- APARTEKO GARBIKETA

2.3.1. OHIKO GARBIKETA

Ohiko garbiketak bi mota hartzen ditu bere baitan:

a) Mantentze izaerako garbitasuna

Esleipendunak izaera horrekin adierazitako lanak izango dira, eta maiztasuna ezin izango da inola ere **I. eta II. I Eranskinetan** adierazitakoa baino txikiagoa izan, eta erabiltzen den metodologia ezin izango da Plegu honetan azaldutakoaren aldean ezberdina, salbu eta kontratazio organoak lehenesten duenean.

b) Garbiketa orokorra

Garbiketa Orokorra zoruen, altzarien eta abarren egoera ona berreskuratzeko garbiketa sakona izango da. Maiztasuna ezingo da izan, inola ere, **II. Eranskinean** ezarritakoa baino txikiagoa.

Garbiketa Orokorra mantentze garbiketan islatutako guztia izango da, baita erradiadoreak, pertsianak, manparak, altzariak gain aldetik eta azpi aldetik, aulkiak eta mahaiak, errotuluak eta idazkunak, koadro eta apaingarriak, argi guneen kanpo aldea eta lehen deskribatu ez diren osagai guztiak garbitzea.

2.3.2. APARTEKO GARBITASUNA

Garbiketa Orokorrak aparteko izaerarekin eta behin bakarrik egiten direnak izango dira, adibidez eraikinetan, bulego berrietan edo berrituetan nahiz aparteko gertakarien ondoriozko egoeretan (suteak) obra amaierako garbiketak egitea.

determinados en la proposición de la empresa adjudicataria en este contrato o cuando surjan dudas sobre uno o varios de ellos, el responsable del contrato podrá solicitar a la empresa adjudicataria que presente los certificados tanto de su composición como sanitarios, los cuales podrán ser facilitados por el fabricante y en el caso de inexistencia u otra comprobación adicional, se encargará su análisis a un laboratorio homologado, siendo los gastos a costa de la adjudicataria.

2.3. TIPOS DE LIMPIEZA:

A los efectos del presente Pliego se establecen tres tipos de limpieza:

- LIMPIEZA ORDINARIA
- LIMPIEZA EXTRAORDINARIA

2.3.1. LIMPIEZA ORDINARIA

La limpieza ordinaria comprende dos tipos:

a) Limpieza de mantenimiento

Son las labores calificadas como tal por la adjudicataria sin que pueda su frecuencia bajo ninguna circunstancia, ser inferior a la establecida en los **Anexos I y II**, ni la metodología utilizada diferente a la indicada en el presente Pliego, salvo cuando por el órgano de contratación se considere preferible.

b) Limpieza general

Se entiende como Limpieza General una limpieza en profundidad destinada a recuperar el buen estado de suelos, mobiliario, etc. Su frecuencia no podrá ser, bajo ninguna circunstancia, inferior a la establecida en el **Anexo II**.

La Limpieza General comprenderá todo lo reflejado en la limpieza de mantenimiento, así como la limpieza húmeda de radiadores, persianas, mamparas, mobiliario por arriba y por abajo, sobre todo de sillas y mesas, rótulos y letreros, abrillantado a fondo de mobiliario, cuadros y elementos decorativos incluidos, limpieza externa de puntos de luz y en general la limpieza de aquellos elementos no descritos anteriormente.

2.3.2. LIMPIEZA EXTRAORDINARIA

Se consideran Limpiezas Extraordinarias aquellas que se realicen con carácter excepcional y por una sola vez, tales como la limpieza de fin de obra de edificios, dependencias nuevas o reformadas, o como consecuencia de sucesos extraordinarios (incendio, etc.).

Hondarribiko Udala

Lanak zera izango dira, edukitzailea nahiz edukia erabat garbitzea, eta zoru mota bakoitzari dagokion tratamendu zehatza ematea.

Garbiketa egin ondoren, esleipendunak lan-partea aurkeztu beharko du, beharrezkoak izan diren orduen kopurua adieraziz. Ordu horiek ordu-poltsa orokorretik kenduko dira.

2.4. GARBITASUN METODOLOGIA

2.4.1. KANPOKO ZOLADURAK GARBITZEA

Zoladurek bulego edo zentro batean sortzen den zikinkeriaren zati handi bat direnez, arreta berezia jarriko da horiek garbitzerakoan. Hori dela eta, egoerak horretarako bidea ematen duenean tratamendu egokia egin beharko da zoruetan, gero garbitu ahal izateko, eta higiene eta itxura egokia izateko estetikaren nahiz distiraren aldetik.

Oro har, eraikinen barru aldean erraztatze hezea egingo da, erratza modu arruntean pasatu beharrean.

Terrazoan ez da soluzio alkalino edo azidorik erabiliko, azalera hondatuko baitu eta distira galduko baitu. Oro har detergente neutroak erabiliko dira.

Marmolezko zoruak dentsoagoak dira, hau da, ez dute hainbeste poro eta ez dira hain xurgatzaileak. Arreta jarriko da ez erabiltzeko azido alkalinoak marmola hondatzen baitute eta itxura motela ematen baitiote.

Jende asko ibiltzen den bestelako eremuetan tratamendua maizago egingo zaie, polimero emultsioak botaz aldian-aldian (aldez aurretik ondo garbituko dira).

Eskailerei argizari gogor ez-labaingarria emango zaie. Dena dela, gainerako eraikinetan aukeratuko da kalitateari eutsiz ez-labaingarriena den produktua.

Gogorrak diren beste zenbait zoladura (granitoak, gresak, etab.) xurgatu egingo dira edo erraztatze hezea egingo da eguneroko. Urez garbituko dira itsatsiak duten orbana edo zikinkeria arrastoak kentzeko.

Hormigoian hartuko diren garbitasun neurriak terrazo edo marmolezko zoruetan hartutakoak izango dira.

Los trabajos consistirán en una limpieza total, tanto del continente como del contenido, incluso el tratamiento específico correspondiente a cada tipo de suelo.

Una vez realizada la limpieza, la Adjudicataria deberá presentar un parte de trabajo, indicando el número de horas que han sido necesarias, que se restarán de la bolsa de horas general.

2.4. METODOLOGÍA DE LIMPIEZA

2.4.1. LIMPIEZA DE PAVIMENTOS INTERIORES

Debido a que los pavimentos presentan una gran parte de la suciedad que se genera en una dependencia o centro, se prestará especial atención a su mantenimiento. Por este motivo se prescribe un tratamiento adecuado de los diversos suelos, cuando las circunstancias lo permitan, de manera que se facilite su limpieza posterior, además de conseguir un mayor nivel de higiene y de aspecto estético-brillante.

En general, en los interiores de los edificios se aplicará el barrido húmedo, sustituyendo el barrido convencional.

En el terrazo, no se usarán soluciones alcalinas o ácidas porque deteriorará la superficie del mismo, perdiendo su brillo. En general se utilizarán detergentes neutros.

Los suelos de mármol son más densos, es decir, menos porosos y absorbentes. Se evitará aplicar materiales ácidos o alcalinos porque dañan el mármol y hacen que presente un aspecto apagado.

En otras zonas de mucho tránsito, se realizará un tratamiento más frecuente de estos pavimentos, con aplicaciones periódicas de emulsiones de polímeros (previamente limpiados a fondo).

Las escaleras serán enceradas con cera dura antideslizante. No obstante, en el resto de superficies, se elegirá siempre el producto que, manteniendo la calidad, sea más antideslizante.

Otros pavimentos duros (granitos, gres, etc.), se aspirarán o se aplicará el barrido húmedo diariamente. Se fregarán para eliminar manchas y otros restos de suciedad adherida.

En el hormigón, se tomarán las mismas medidas de precaución que con los suelos de terrazo o mármol.

Hondarribiko Udala

Gres zoruetan ez da azidorik erabiliko, junturak hondatzen baititu.

Oro har ez da detergente edo bestelako produktu azidorik erabiliko zoladuren mantentze lanetan, azalera hondatu baitezakete. Gainera, zoladura guztietan ur3ez garbitu baino lehen hautsa eta zikinkeria arrastoak kenduko dira moparekin. Beti ahalik eta lehorren utziko da. Inoiz ez da ur hutsa erabiliko, beti soluzio detergente edota desinfektatzaile bat emango baitzaio.

Zoladura sintetikoak (lineoluma, sintasola, PVCa eta bestelako eratorriak) bi modu hauetakoren batez erabili ahal izango dira: Urez ondo garbituz makina errotatiboaren bidez eta ondoren emultsioa emanez zoruak babestu eta distira emateko, edo Esprai metodoa abiadura handiko makinarekin, aldi berean garbitu eta distira emateko. Zoru horien eguneroko garbitze lana errestatze hezea eginez egingo da, eta orban gogorrak kentzeko urez garbituta.

Gomazko lauzetan, base disolbatzailea duten disolbatzaile eta ezkoek eraso egiten diete berehala, asfaltozko geruzari bezalaxe. Ez dira inoiz erabili behar base disolbatzailea duten disolbatzaile eta ezkoak (ezko-ore gehienak).

Egur, parket do kortxozko zoladuretan, ezkoak aplikatuko dira base disolbatzailean (urik ez), gainazal horiei babesa eta distira ematen dietelako. Geroagoko mantentzea mopa lehorraz eta hautsa harrapatzeko produktuez egingo da. Gainera, aldian-aldian ezkoa emateko makina elektrikoa erabili ahal izango da.

Pororik ez duten egurrezko lurretan (azalera lakatuetan, bernizatuetan edo plastifikatuetan) mopa erabiliko da zertxobait hezea den zapi batez. Hilero ezkoa emango zaio zoruetarako egokia den argizaria emanez.

Pertsona-bolumen handiko zentroen kasuan, terrazozko zoruetan makina birakaria erabiltzea derrigorrezkoa izango da kristalizatzeko.

Alfonbra, moketa, tapizeria eta hainbat osagairi hautsa kentzeko aspiragailuak erabiliko dira. Gainera edozein orban kenduko da azaldu ahala orbanak kentzeko produktu bereziekin, kontuan izanda alfonbraren edo moketaren osaera.

2.4.2. HORMAK, SABAIAK ETA ANTZEKO OSAGAIAK GARBITZEA

En los suelos de gres no se usarán ácidos porque atacan las juntas.

En general, se evitará el uso de detergentes y otros productos ácidos en el mantenimiento de pavimentos, que puedan dañar su superficie. También, en todos los pavimentos, antes de fregar se quitará el polvo y otros restos de suciedad con la mopa. Siempre se dejará lo más seco posible. El agua no se empleará nunca sola, ya que se le añadirá siempre una solución detergente y/o desinfectante.

Los pavimentos sintéticos, como el linóleum, sintasol, PVC y otros derivados se podrán tratar de las dos formas siguientes: fregado a fondo con máquina rotativa y aplicación posterior de una emulsión para proteger y abrillantar estos suelos, ó el método Spray con máquina de alta velocidad que permite limpiar y abrillantar en la misma operación. El mantenimiento diario de estos pavimentos se realizará con un barrido húmedo, y con el fregado para eliminar las manchas resistentes.

En las losetas de goma, los disolventes y las ceras, con bases disolventes le atacan rápidamente de la misma manera que a la tela asfáltica. Nunca se debe utilizar un disolvente o una cera con bases disolventes como la mayoría de las ceras en pasta.

En los pavimentos de madera, parqué o corcho, se aplicarán ceras en base disolvente (no agua), que dan protección y brillo a estas superficies. El mantenimiento posterior se realizará con mopa seca y productos capta-polvo. También, se podrá aplicar periódicamente la enceradora eléctrica.

En los suelos de madera sin poros (superficie lacada, barnizada o plastificada) se utilizará la mopa con un paño ligeramente humedecido. Mensualmente, se encerará con cera adecuada para suelos.

En caso de los centros con gran volumen de personas, en los suelos de terrazo el uso de máquina rotativa para su cristalizado será obligatoria.

Se utilizarán máquinas aspiradoras para desempolvado de alfombras, moquetas, tapicerías y elementos varios. Asimismo, se eliminará cualquier mancha, cuando se produzca, con quita-manchas específicos teniendo en cuenta la composición de la alfombra o moqueta.

2.4.2. LIMPIEZA DE PAREDES, TECHOS Y ELEMENTOS ANÁLOGOS

Hondarribiko Udala

Behar adina alditan honakoak garbituko dira baliabide egokienak erabiliz: hormak 3,5 metroko altueraraino, sabaiak, erlaitzak, moldurak, ispiluak eta antzeko osagaiak.

Siempre que fuese preciso, se llevara a cabo una limpieza de paredes interiores, hasta una altura de 3,5 metros, techos, cornisas, molduras, espejos y elementos análogos, utilizando los medios más adecuados.

Hormak bi motatakoak izango dira, urez garbitu ahal direnak eta urez garbitu ezin direnak. gaur egun pintura gehienek aglutinatzaile sintetikoak erabiltzen dituzte, hala ura erabili ahal izateko azalera horietara itsatsiak diren orbanak eta bestelako zikinkeria garbitzeko.

Las paredes se dividirán en paredes lavables y no lavables. Actualmente, la mayoría de las pinturas utilizan aglutinantes sintéticos que permiten el uso del agua para la limpieza de manchas y otra suciedad adherida a estas superficies.

Urez garbitu ezin diren hormetan mopa lehorrak eta hautsa hartzeko produktuak erabiliko dira, eta baztertu egingo dira zapi hezeak.

En las paredes no lavables sólo se utilizarán mopas secas y productos capta-polvo, desechándose las bayetas humedecidas.

2.4.3. METALEN GARBIKETA

Ur beroz eta xaboi-soluzio batez hezetutako zapi leun batekin garbituko dira, eta zapi leun xurgatzaile batekin lehortuko dira. Ez da inoiz altzairuzko esponjatxorik, zapi zakarrik edo soluzio urratzailerik erabiliko. Zikinkeria gehiegi pilatu den tokietan edo oxido arrasto arinak edo orbanak agertu diren tokietan horiek kentzeko azalera ondo garbituko da 100eko 10eko sodio nitratoa duen zapi heze batez garbituz, eta gero krema zuritzaile bat emango zaio; horren ondoren oxido orbanak indarrez igurtziko dira. Ondoren urez pasatuko da ondo, eta zapi leun garbi eta lehor batekin lehortuko da.

2.4.3. LIMPIEZA DE METALES

Se limpiarán con un paño suave humedecido en agua caliente y solución jabonosa y se secará con un paño suave y absorbente. No se utilizarán nunca esponjillas de acero, paños ásperos ni soluciones abrasivas. Allí donde indebidamente se ha acumulado suciedad en exceso, o hubieren aparecido ligeras señales de óxido o manchas, éstas podrán eliminarse limpiando bien la superficie con un paño humedecido con una solución de nitrato sódico al 10 por 100, impregnando luego con una crema blanqueadora, tras lo cual se frotarán vigorosamente las manchas de óxido. A continuación, se enjuagará bien y se secará con un paño suave limpio y seco.

2.4.4. KRISTALAK GARBITZEA

Lehiaketa honen xede diren eraikin guztietan, kristalen garbiketak tratamendu espezifikoa izango du, hilean behin gutxienez. Beirateen kasuan, erabili beharreko ezohiko bitartekoak direla eta (aldamioak), urtean behin garbituko dira.

Badira garbiketa bereziak (beluxak, argizuloak, …) eskulan espezializatua beharko dutenak, altuerako eta kanpoko lanak direlako. Horrelako lanetarako, aparteko segurtasun-neurri guztiak hartuko direla bermatuko da: segurtasun arnesak, bizi-lerroak, …

Beluxak dituzten ikastetxeen kasuan, garbiketa hiru hilean behin egingo da. Eskaileretako sabai-leihoak, aldamioak beharko dituztenez, urtero garbituko dira garbiketa orokorrean, aurreko paragrafoan adierazi den bezala.

Kristalak detergente neutro edo kristal-

2.4.4. LIMPIEZA DE CRISTALES

En todos los edificios objeto de este Concurso, la limpieza de cristales tendrá un tratamiento específico, con una periodicidad mínima mensual. En el caso de las vidrieras, debido a los medios extraordinarios a utilizar (andamios) se limpiarán con frecuencia anual.

Existen limpiezas especiales (veluxes, lucernarios, …) que necesitarán de mano de obra especializada al tratarse de trabajos en altura y en exteriores. Para este tipo de trabajos se adoptarán todas las medidas de seguridad extraordinarias; utilización de arneses de seguridad, líneas de vida, …

En el caso de centros escolares con veluxes, la limpieza será trimestral. Los lucernarios en escaleras, dado que requerirán de andamiaje, se limpiarán anualmente en la limpieza general, tal y como se ha indicado en el párrafo anterior.

Los cristales se limpiarán con detergentes

Hondarribiko Udala

garbitzaileekin garbituko dira. Gainazal horiek maiz mantentzeko beharrezkoak diren tresnak, kristalak garbitzekoak, erabiliko dira (gomazko ezpainak, hedagarriak erabiltzea, eskailerak, etab.).

Kristalak garbitzerakoan, kontuan hartuko dira horien leiho-ertzak, markoak eta ingeradak.

2.4.5. GORTINAK ETA PERTSIANAK GARBITZEA

Iristeko moduan dauden pertsianei aldian-aldian hautsa kenduko zaie. Urtean behin pertsianak detergente neutroarekin garbituko dira, eta presio-makinak edo lurrun-makinak erabili ahal izango dira, kasuen arabera.

Urtean behin gortinak kendu, garbitu eta berriro jarriko dira. Horien materialen arabera garbiketa produktu egokiak erabiliko dira.

2.4.6. ESKUBANDAK ETA ESKUDELAK GARBITZEA

Eskailerek edo karelek metalezkoak ez diren esku-barandak edo eskudelak badituzte zapi leunarekin garbituko dira. Akaberaren arabera, bernizatua edo margotua den, lehenengo kasuan ezko likidoak erabili ahal izango dira.

2.4.7. ARGI-GUNEEN GARBIKETA

Garbitasun lana zera izango da, lanpara, fluoreszente, bonbila, ispilu-pantaila eta abarretan osagai egokiekin (mustukarekin, zapiarekin eta abarrekin) hautsa kentzea aparailurik desmuntatu gabe.

Pantailak, lanparak eta abar sakon garbitu behar direnean udalak izendatzen duen pertsonalak desmuntatu eta lan mahaietan jarriko dituzte. Garbitu ondoren, pertsonal horrek berriz ere muntatu egingo ditu. Lan horiek kontratua burutzeko ardura duen pertsonak koordinatuko ditu.

2.4.8. BAINUGELAK, DUTXAK, KOMUNAK ETA KOMUN-ONTZIAK GARBITZEA

Arreta berezia jarriko da komunen (dutxa eta bainuontziak), komun-ontziak, konketak eta abar garbitzerakoan. Arreta handiz garbituko dira. lixiba, urratzaile klorodunak eta aldian-aldian detergente azidoak erabiliz jatorri mineraleko zikinkeria kentzeko.

neutros o limpiacristales. Se utilizarán los utensilios, limpiacristales necesarios para un frecuente mantenimiento de estas superficies (labios de goma, uso de extensibles, escaleras, etc.).

En la limpieza de cristales se tendrán en cuenta alfeizares, marcos y contornos de los mismos.

2.4.5. LIMPIEZA DE CORTINAS y PERSIANAS

Las persianas que sean accesibles se desempolvarán periódicamente. Anualmente, se limpiarán las persianas con detergente neutro y se podrá aplicar máquinas a presión o vapor según los casos.

Las cortinas se descolgarán, limpiarán y volverán a colocar con una periodicidad anual. Para su limpieza se utilizarán productos adecuados de acuerdo al material de cada cortina.

2.4.6. LIMPIEZA DE PASAMANOS Y BARANDILLAS

Se deberán limpiar con un trapo suave, los pasamanos y las barandillas no metálicas, de escaleras o antepechos. Dependiendo si su acabado final es barnizado o pintado, se pueden aplicar en el primer caso ceras líquidas.

2.4.7. LIMPIEZA DE PUNTOS DE LUZ

La limpieza consistirá en quitar el polvo con elementos adecuados (plumero, bayeta, etc.) de lámparas, fluorescentes, bombillas, pantallas especulares, etc. sin desmontar aparato alguno.

Cuando se deban limpiar en profundidad las pantallas, lámparas, etc., estos elementos serán desmontados y depositados en el suelo o mesa de trabajo, por el personal que designe el Ayuntamiento. Una vez limpios dicho personal los volverá a montar. La coordinación de estos trabajos será dirigida por el responsable de la ejecución del contrato.

2.4.8. LIMPIEZA DE CUARTOS DE BAÑO, DUCHAS, ASEOS Y SANITARIOS

Se prestará especial atención a la limpieza de cuartos de baño (duchas y bañeras), inodoros, lavabos, etc. Haciéndolo cuidadosamente utilizando lejía, abrasivos clorados y periódicamente detergentes ácidos para eliminar la suciedad de origen mineral.

Hondarribiko Udala

Lixiba eta bestelako desinfektatzaileak kontzentrazio egokietan erabiliko dira, adierazitakoetan, alegia, dosifikazio neurriak erabiliz.

La lejía y otros desinfectantes siempre se emplearán en concentraciones adecuadas e indicadas, utilizando las medidas dosificadoras.

2.4.9. HONDAKINEN KUDEAKETA

Enpresa esleipendunak exekuzioan sortutako hondakinak kudeatuko, eta egoki kudeatzen direla bermatuko du.

Kontratuaren gaia diren instalazioetan sortutako hondakinei dagokienez, enpresa esleipendunak gaur egungo gaikako bilketarekin jarraituko du, edo kontratuaren exekuzioan sartzen den sistema erabiliko du.

Zabor poltsak itxi egingo dira kendu aurretik. Ez dira estutuko eta komeni den moduan manipulatuko dira, badaezpada ere isurkiren edo objektu ebakitzaileren bat dagoen. Paperontzian poltsa berri bat jarriko da, ondo eutsita geratzeko moduan. Zabor poltsa guztiak kalean dagozkien edukiontzietan jarriko dira.

Materia organiko konpostagarria isurtzen bada hori jasotzeko poltsa konpostagarriak erabiliko dira.

Komunetako edukiontzi higienikoetako hondakinak baztertzekoak diren gainerako osagaiekin botako dira, ez baldin badago hondakin berezi horiek kudeatzeko sistema kontratatua.

Enpresa esleipendunak zerbitzua burutzerakoan sortutako hondakinei dagokienez (papera, zapiak, kartoia, produktuen ontziak, etab.) enpresak bereizi eta hiri edukiontzietan utziko ditu, haietan uzteko egokiak badira, edo baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatuko ditu, hondakin arriskutsuak badira.

Kontratuaren hasieran enpresa esleipendunak azalduko du zer kudeatzaile baimenduri emango dizkion hondakin arriskutsu horiek. Hondakin arriskutsuak modu seguruan gordeko dira, eta gehienez ere sei hilabetez gordeko ditu.

Garbiketa lanen ondoriozko produktu guztiak egunero kenduko dira, lanak amaitu ondoren. hartarako baliabidea egokiak erabiliko dira: poltsa, edukiontziak, etab., eta hartarako Garbitasunaren udal Ordenantzatik ondorioztatzen diren argibideak edo eskumena duten Udal Zerbitzuek adierazten dituzten argibideak jarraituko dira.

2.4.9. GESTION DE RESIDUOS

La empresa adjudicataria gestionará los residuos generados durante la ejecución del contrato y garantizará su correcta gestión.

Respecto a los residuos generados en las instalaciones objeto del contrato, la empresa adjudicataria mantendrá la recogida selectiva existente en la actualidad o la que se incorpore durante la ejecución del contrato.

Las bolsas de basura se cerrarán antes de ser retiradas. No se apretarán y se manipularán convenientemente por si existe algún vertido líquido u objeto cortante. Se colocará una nueva bolsa en la papelera de forma que quede bien sujeta. Todas las bolsas de basura se depositarán en los correspondientes contenedores en la calle.

En caso de que se segregue la materia orgánica compostable, utilizará bolsas compostables para recogerla.

Los residuos de los contenedores higiénicos de los aseos los gestionará junto con el resto de la fracción rechazo, en aquellos casos en los que no esté contratada la gestión especifica de dichos residuos.

Respecto a los residuos generados por la empresa adjudicataria en la ejecución del servicio (papel, trapos, cartón, envases de productos, etc..) la empresa los segregará y depositará en los contendores urbanos, en caso, de que sean residuos asimilables a estos, o los gestionará a través de un gestor autorizado, en caso de tratarse de residuos peligrosos.

Al inicio del contrato, la empresa adjudicataria presentará los gestores autorizados a los que entregará sus residuos peligrosos. Los residuos peligrosos se almacenarán de forma segura y su almacenamiento no durará más de seis meses.

Todos los productos procedentes de las limpiezas, serán retirados diariamente, una vez concluidos los trabajos. Para ello se utilizarán los medios apropiados: bolsa, contenedores, etc., siguiendo las instrucciones que a tal efecto se deducen de la Ordenanza Municipal de Limpieza o se señalen por los Servicios Municipales competentes.

Hondarribiko Udala

2.4.10. OPORRALDIETAKO GARBIKETAK IKASTETXEETAN

Irakaskuntza-jarduerarako eraikinetan, **garbiketa orokorra** egingo da **urtero** horietako bakoitzean, hiru oporraldietako batean (neguan, udaberrian edo udan).

2.4.11. PATIOEN GARBIKETA IKASTETXEETAN

Irakaskuntza-jarduerarako eraikinetan patioak garbitu beharko dira, eta zeregin hauek izango dituzte:

- Astero garbitzea eta zoruak mantentzea: puztea edo ekortzea, pilatutako zaborra biltzea, puztea eta orriak biltzea, ubideak garbitzea eta estoldetako saretak mantentzea, horiek ez betetzeko.

  Mantentze-lan horren barruan sartzen da espazioko elementuen ohiko erabilerak eragindako zikinkeria oro garbitzea, hala nola haurren jolaserako harea edo landareen bankalen lurra.

- Paperontziak astero hustea eta hondakinak gaika biltzea.

- Talaia Bordari eta Talaia Biteri patioetan dauden harrasken bi asteko garbiketak.

- Patioetan dauden zabor-biltegiak urtero garbitzea (hori zentro bakoitzaren urteko garbiketa orokorrarekin batera egingo da).

2.4.12. GARBIKETA ORDUTEGIAK ETA MAIZTASUNAK

Oro har, garbiketa guztiak astelehenetik ostiralera egin beharko dira, jarduera nagusia amaitu eta hasi baino ordu erdi lehenago.

I. eranskinean zehazten dira puntu honetan adierazitakoaz beste dituzten eraikin edo ikastetxeen ordutegiak.

2.4.10. LIMPIEZAS VACACIONALES EN CENTROS ESCOLARES

En los edificios dedicados a la actividad docente se realizará una **limpieza general anual** en cada uno de ellos, coincidiendo con alguno de los tres periodos vacacionales (invierno, primavera o verano).

2.4.11. LIMPIEZA DE PATIOS EN CENTROS ESCOLARES

En los edificios dedicados a la actividad docente deberá realizarse la limpieza de los patios en los que habrá las siguientes tareas:

- Limpieza semanal y mantenimiento de suelos: que conllevará el soplado o barrido y recogida de basura acumulada, soplado y recogida de hojas, limpieza de acequias y mantenimiento de las rejillas de las alcantarillas para prevenir su colmatación.

  Este mantenimiento incluye la limpieza de cualquier suciedad producida por el uso habitual de los elementos del propio espacio, como puede ser la arena de un arenero de juego infantil o la tierra de bancales de plantas.

- Vaciado semanal de las papeleras y recogida selectiva de residuos.

- Limpiezas bi-semanal de los fregaderos ubicados en los patios de Talaia Bordari y Talaia Biteri.

- Limpieza anual de los depósitos de basura ubicados en los patios (lo cual se hará junto con la limpieza general anual de cada centro).

2.4.12. HORARIOS Y FRECUENCIAS DE LIMPIEZA

Como norma general todas las limpiezas deberán realizarse de lunes a viernes, en horas comprendidas entre la finalización de la actividad principal y media hora antes del comienzo de las mismas.

Se especifican en el **Anexo I** los horarios de aquellos edificios o centros escolares que difieren de lo indicado en este punto.

3. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

3. OBLIGACIONES Y DERECHOS DE LA ADJUDICATARIA

Hondarribiko Udala

3.1. BETEBEHAR OROKORRAK

Hauek dira esleipendunaren ardurak:

a) Antolamendu tekniko eta ekonomiko nahiko izatea eta beharrezko pertsonala izatea zerbitzua egoki burutzeko.

b) Behar bezala akreditatuta dagoen koordinatzailea edo arduraduna izendatzea esleipendunaren eta udal zerbitzuen arteko harremanak bideratzeko.

c) Zerbitzua plegu honetan ezarritako giza baliabide eta baliabide teknikoak erabiliz burutzea, eta kontrol eta zaintza jarduera burutzea, bai alderdi kuantitatiboan eta bai kalitatearen aldetik.

d) Udalaren esku jartzea giza baliabide eta makineria baliabide guztiak beharrezkoa izatea eragiten duten egoera bereziak edo larrialdi egoerak daudenean.

e) Egiaztatzea eta zuritzea, Udalak eskatzen dion aldiro, zergen, lanaren, gizarte segurantzaren eta abarren alorreko betebeharrak betetzea, esleipendunari eskatu ahal zaizkion dokumentazioa eta egiaztagiriak aurkeztuz.

f) Hileko fitxaketen erregistroa aurkeztea, fakturekin batera entregatuko dena.

g) Plegu hauetan ezarritakoez gain esleipendunari eskatzen zaion informazioa ematea gai hauei buruz: lan prozesuak, egindako lanak, horretan eman den denbora, taldeen eraketa, langileen ordezkapenak, etab. Zehazki, aparteko lanei dagokienez, kontratuaren exekuzioaren erantzukizuna duen Udaleko arduradunaren aurrean hileko partea aurkeztuko du, eta bertan hilean izandako gorabehera guztiak jasoko ditu.

h) Ikastetxe bakoitzeko arduradunari langileek lanak burutzerakoan edo lokalean dauden bitartean edo kontratuaren esparruko bulegoetan daudenean aurkitzen dituzten objektuak ematea.

3.2. MATERIALA ETA MAKINERIA

Esleipendunaren kontura joango da zerbitzuak emateko garbitasun baliabideak eta materiala emateko ardura.

Era berean ordezkatu egin beharko dituzte komuneko papera, paperezko zapiak eta eskuetarako xaboia zerbitzua ematen den bulego guztietan.

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren ura eta energia elektrikoa dohainik emango ditu esleipendunak.

3.3. MATERIALA ESKURA IZATEA

3.1. OBLIGACIONES DE CARÁCTER GENERAL

Son obligaciones de la adjudicataria, las siguientes:

a) Disponer de la organización técnica, económica y de personal suficiente para la adecuada realización del servicio.

b) Nombrar un coordinador o responsable debidamente acreditado que canalice las relaciones entre la adjudicataria y los servicios municipales.

c) Llevar a cabo el servicio con los medios humanos y mecánicos establecidos en el presente pliego, y ejercer la actividad de control y vigilancia, tanto en sentido cuantitativo como de calidad.

d) Poner a disposición del Ayuntamiento la totalidad de los medios humanos y maquinaria, cuando concurran circunstancias especiales o de urgencia que lo hagan necesario.

e) Acreditar y justificar, siempre que le sea requerido por el Ayuntamiento, el cumplimiento de las obligaciones fiscales, laborales, en materia de seguridad social, etc., mediante la aportación de la documentación y/o comprobantes que puedan ser exigidos a la adjudicataria.

f) Aportar el registro de fichajes mensual, que se entregará junto con las facturas.

g) Aportar la información que, al margen de lo establecido en este Pliego, se solicite a la adjudicataria de forma específica sobre procesos de trabajo, tareas efectuadas, tiempo invertido, constitución de equipos, sustituciones del personal, etc. Específicamente, en relación a los trabajos extraordinarios, se presentará ante el responsable de la ejecución del contrato del Ayuntamiento, parte mensual que recoja todas las incidencias del mes.

h) Entregar a persona responsable de cada centro los objetos que los operarios puedan encontrar durante la realización de los trabajos o su permanencia en los locales y/o dependencias incluidas en el ámbito de contrato.

3.2. MATERIAL Y MAQUINARIA

Serán por cuenta de la adjudicataria el suministro de todos los útiles y material de limpieza y maquinaria para prestar estos servicios.

Así mismo deberán reponer papel higiénico, toallas de papel y jabón de manos en todas las dependencias en las que se preste el servicio.

El agua y la energía eléctrica, necesarias para la prestación de los servicios, será facilitada gratuitamente al adjudicatario.

3.3. DISPONIBILIDAD DE MATERIAL

Hondarribiko Udala

Kontratistak une oro eskura izango du zerbitzuak emateko beharrezkoa den materiala, hori dela eta komenigarriak ikusten dituen erreserbarako ekipamendua izango du, eta bere proposamenean Proposatutako Erreserba Plana azaldu beharko du.

El/la Contratista deberá tener constantemente a disposición el material necesario para prestar los servicios, por lo que deberá contar con los equipos de reserva que considere convenientes, debiendo indicar en su proposición el Plan de Reservas Propuesto.

Materialera bideratutako aurrekontuaren ehunekoa (garbiketa-produktuak, baietak, lanbasak, kuboak, etab.) ez da honako hau baino txikiagoa izango:

- Bulegoak eta administrazio-eraikinak: % 2 eta % 4 artean
- Ikastetxeak eta gainerako eraikinak: % 3 eta % 5 artean

El porcentaje del presupuesto dedicado a material (productos de limpieza, bayetas, fregonas, cubos, etc) no será inferior a:

- Oficinas y edificios administrativos: entre un 2% y 4%
- Colegios y resto de edificios: entre 3 y 5%

Ikastetxeetan zabor- eta eskuetako xaboi-poltsak hornitzen direnez, aurrekontuaren ehunekoa ez da % 4tik beherakoa izango.

Dado que en los colegios se suministran bolsas de basura y jabón de manos, el porcentaje del presupuesto no será inferior al 4%.

3.4. ETENGABEKO ARRETA

Esleipendunak telefono bidezko deietarako arreta Zerbitzu iraunkorra izango du, eta aldi berean, kasuz kasu, eguneroko harreman etengabea izango du, Pleguan adierazitako Teknikariaren bidez, izendatutako udal teknikoarekin.

3.4. ATENCIÓN PERMANENTE

La adjudicataria dispondrá de un Servicio de atención permanente de llamadas (teléfono) y a la vez, mantendrá contacto permanente y diario, en su caso, con el Técnico Municipal designado.

3.5. INGURUMEN IRIZPIDEAK

Enpresa Esleipendunak zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktu guztien adierazpen bat aurkeztuko du, eta azalduko du zein den haien eginkizuna edo aplikazio eremua eta zertan den arriskutsua. Era berean, haietako bakoitzaren segurtasun datuen fitxak aurkeztuko ditu.

Garbitasunean ez dira erabiliko: Aire-gozagarririk, pastilla edo substantzia lurrindunak pixatokietan, esprai produktuak, desinfektatzaileak edo desinfektatzailedun produktuak (adibidez lixiba) garbiketa orokorrean komunetan izan ezik eta desinfekzioa beharrezkoa duten azaleretan (hala adierazita badago) izan ezik.

Gehien erabiltzen diren garbigarriek (erabilera anitzetarako garbigarriak, zoruetarako garbigarriak eta komunetarako garbigarriak) Europako ekoetiketaren edota antzekoaren bateko baldintzak beteko dituzte produktuaren formulazioan dauden konposatu kimikoei dagokienez.

Garbiketa-produktuek ingurumena errespetatu behar dute.

Ahalik eta garbiketa-produktu gutxien erabili beharko dira. Garbiketa-produktu arriskutsuak erabiltzen diren kasuetan, alternatiba edo erabilera zehatz horretarako arriskutsuak ez diren produktu alternatiborik ez dagoela justifikatu beharko da.

Dosifikagailu zehatzak dituzten ontziak erabili behar dira.

Kontratua burutzerakoan eskaintzan aurkeztu ez den produkturen bat erabili behar bada, enpresa esleipendunak bere segurtasun fitxa aurkeztuko du

3.5. CRITERIOS AMBIENTALES

La Empresa Adjudicataria presentará una declaración de todos los productos que usará en el transcurso del servicio, indicando para cada uno de ellos, su función o superficie de aplicación y sus características de peligrosidad. Asimismo, presentará las fichas de datos de seguridad de cada uno de ellos.

En la limpieza no se deberán emplear: ambientadores; pastillas o sustancias perfumadas para urinarios; productos en spray; desinfectantes o productos con desinfectantes (como la lejía) para la limpieza general, excepto en los aseos y aquellas superficies en las que se ha especificado la necesidad de desinfección.

Los productos de limpieza de mayor uso (el limpiador multiusos, el limpiador de suelos y el limpiador de aseos) cumplirán con los requisitos definidos en las ecoetiquetas europeas u otras equivalentes en cuanto a la presencia de compuestos químicos en la formulación del producto.

Los productos de limpieza han de ser respetuosos con el medio ambiente.

Se deberá tender a la menor diversidad de productos de limpieza posible. En los casos en los que se utilicen productos de limpieza peligrosos, deberá justificarse que no existen productos alternativos no peligrosos para esa alternativa o uso concreto.

Se deberán emplear envases que dispongan de aparatos de dosificación precisos.

Si se va a utilizar durante la ejecución del contrato otro producto no presentado en la oferta, la empresa adjudicataria deberá presentar su ficha de seguridad

Hondarribiko Udala

udalak onar dezan, erabili aurretik.

Ezaugarri hauek zehaztuko ditu:

a) GARBIKETA-PRODUKTUAK

- Xaboiak. Eskaintzen den eskuetarako xaboiak ez du koloratzailerik, lurrinik edo agente desinfektatzailerik izan behar, eta Europako ekoetiketetan edo beste baliokide batzuetan zehaztutako irizpideak bete beharko ditu.

- Garbitzeko tresnak Garbitasunerako zapiak, mopak eta zoru-garbitzaileak mikrozuntzez eginak izango dira, hondakin gutxiago sortzeko, ur kontsumoa murrizteko eta bestelako produktu kimikoen erabilera murrizteko. Eskaintzan horren fitxa teknikoa aurkeztuko da.

b) BIRZIKLATUAK DIREN PRODUKTUAK

- Hondakinetarako poltsak. Poltsa bat erabiliko da hondakin multzo bakoitzerako, eta horietako bakoitza kolorearen arabera ezarriko da, urdina papererako, horia ontzi-hondakinetarako, beltza baztergarrietarako, eta berdea produktu organikoetarako. Produktu organikoetarako erabiltzen ez diren zabor-poltsek gutxienez %80ko plastiko birziklatua izango dute (dagokion fitxa teknikoan aurkeztuko da).

- Ur/kafe edalontziak. Erabili eta botatzeko eta material biodegradagarriekin egindako paperezko edo kartoizko edalontziak hornituko dira, hondakin organikoekin batera bota edo paperarekin birziklatu ahal izango direnak.

- Berreskuratutako materialekin egindako bestelako produktuak.

c) PRODUKTUEN ONTZIEN KUDEAKETA

- Ontziei etiketak jartzea.
  Erabiltzen diren ontzi guztiak (bai produktu kontzentratuenak eta bai diluitutakoenak) etiketatuta egongo dira une oro produktua identifikatu ahal izateko moduan. Etiketetan zera jarriko du:

  - Produktuaren izen komertziala.
  - Produktuak izan ditzakeen osagai arriskutsuen izendapen kimikoa.
  - Dagozkion arrisku/toxikotasun ikurrak.
  - Erabili eta dosifikatzeko argibideak.
  - Ingurumen legeria betetzen dela

para su aceptación por parte del Ayuntamiento, previamente a su utilización.

Deberá detallar las características de:

a) PRODUCTOS DE LIMPIEZA

- Jabones. El jabón de manos ofertado no ha de contener colorantes, fragancias ni agentes desinfectantes y deberá cumplir los criterios definidos en las ecoetiquetas europeas u otras equivalentes.

- Útiles de limpieza: los trapos de limpieza, mopas y fregonas serán de microfibras para reducir la generación de residuos, el consumo de agua y de otros productos químicos. Se presentará su ficha técnica en la oferta.

b) PRODUCTOS RECICLADOS

- Bolsas de residuos. Se utilizará una bolsa para cada fracción de residuos y cada una de ellas se depositará según el color, azul para el papel, amarillo para los residuos de envases, negro para el rechazo y verde para los productos orgánicos. Las bolsas de basura para residuos diferentes de los orgánicos deberán contener por los menos un 80% de plástico reciclado (se presentará la correspondiente ficha técnica).

- Vasos de agua/café. Se suministrarán vasos de papel o cartón, fabricados con materiales desechables y biodegradables, para que puedan ser desechados junto con los residuos orgánicos o reciclados con el papel.

- Otros productos fabricados con materiales recuperados.

c) GESTIÓN DE ENVASES DE PRODUCTOS

